

**2009KO APIRILAREN 2AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bia

HILABETEA: Apirila

URTEA: Bi mila eta bederatzi.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Aitor Aldasoro Iturbe

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2009ko martxoaren 5ean egindako ohiko batzaraldiko akta onartzeko proposamena.

2009ko martxoaren 5ean egindako ohiko batzaraldiko aktaren berri eman ondoren, Julio Herreros jaunak ez du akta onartu bertan legez kanpo dagoen plataformak parte hartu zuelako. Beste guztiek, proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 7. Sektorearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko behin-behineko onespena.

Alkateak, hirigintza batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“**Gaia:** INDAR 7. sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onespena.

I.- 2008ko ekainaren 5ean egindako Plenoan hasierako onespena eman zitzaion, INDAR 7. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentuari eta jendaurrean jarri zen, 2008ko ekainaren 6an, 7an eta 13an, Berrian, Diario Vasco eta GAOean hilabeteko epean iragarkiak argitaratuz. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

II.- Esan beharra dago, ordea, Legeak esaten duenari jarraituz, Beasaingo udalerriekin muga egiten dituen udaldetara Aurrerakina bidali zela eta Olaberriko Udalak 2008ko maiatzaren 13ko idatziaren bitartez iradokizuna aurkeztu zuela.

III.- Idatzi honi buruz, arkitektoak 2008ko uztailaren 28ko datarekin txostena eman du.

IV.- Espedientea, Bide Azpiegituretako Departamentura ere bidali zen beharrezkoa txostena emateko eskatuz eta 2008ko uztailaren 22ko sarrera duen idatziaren bitartez Departamentu honek adierazi du ez dagoela inolako eragozpenik onartzeko.

V.- 2008ko irailaren 11n Udalbatza Osoak ondorengo erabakia zuen:

1. Olaberriko Udalak aurkeztutako iradokizunak ez onartzea, txosten teknikoaren arabera.

2. INDAR 7. sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespena ematea.

3. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz.

4. Autonomia Erkidegoko ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostena ere eskatzea.

VI.- 2008ko urriaren 8ko datarekin, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen idatzia jasotzen da, adieraziz behin-behineko erabakia hartu baino lehen Aholku Batzordearen txostena behar dela, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua indarrean sartu denetik.

VII.- Hori dela eta Planeamenduko Aholku Batzordea osatu zen eta GAOean 2009ko martxoaren 2an behin betiko onespenea argitaratu da eta 2009ko otsailaren 26 eta martxoaren 3an Alkateak emandako Ebazpenean kideek izendatu zituen.

VIII.- 2009ko martxoaren 3an, Aholku Batzordearen bilera egin zen eta Aholku Batzordea proposatutako aldaketaren alde azaldu zen.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Aholku Batzordeak emandako gomendioa aintzakotzat hartzea.

Bigarren. INDAR, 7. Sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Hirugarren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz eta aldi berean ingurugiro inpaktuari buruzko behin betiko txostena eskatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

3.- INBENTARIOA. 2008ko abenduaren 31ko datarekin udal ondasunen inbentarioa eguneratzea.

Arantxa Gibelalde, Hazienda batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“2.008ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren zuzenketa onartzea proposatzen dio Hazienda Batzordeak Udalbatzari:

UDALA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
ONDASUN HIGIEZINAK	37.014.858,30 €	3.842.800,37 €	33.172.057,93 €
ERAIKUNTZAK	11.907.756,59 €	3.343.408,64 €	8.564.347,95 €
TERRENOAK	5.590.326,77 €		5.590.326,77 €
JOLASTOKIAK	3.593.774,33 €		3.593.774,33 €
BIALAK	15.129.057,27 €		15.129.057,27 €
LANDA FINKAK	30.343,61 €		30.343,61 €
AZPIEGITURA	763.599,73 €	499.391,73 €	264.208,00 €
ERRENTA ESKUBIDEAK	180.303,63 €		180.303,63 €
BALORE MOBILIARIOAK	11.608.709,22 €		11.608.709,22 €
IBILGAILUAK	125.051,93 €	73.838,41 €	51.213,52 €
MOBLERIA	2.133.761,84 €	1.686.594,09 €	447.167,75 €
ONDASUN ESKUBIDE BIHUR. ETA	352.958,27 €		352.958,27 €
GUZTIRA	51.415.643,19 €	5.603.232,87 €	45.812.410,32 €

ERAIKINAK	ERABIL		
LAGAPENEAN		4.202.957,27 €	4.202.957,27 €
LAGAPENEAN			
JASOTAKO ERAIK.		343.677,54 €	13.741,60 €
			329.934,94 €
		55.962.278,00 €	5.616.974,47 €
			50.345.303,53 €

KIROLDEGIA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
MOBLERIA	60.341,26 €	3.016,58 €	57.324,68 €
BALORE MOBILIARIOAK	100,00 €		100,00 €
GUZTIRA	60.441,26 €	3.016,58 €	€ 57.424,68

MUSIKA ESKOLA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
MOBLERIA	118.088,85 €	85.623,11 €	32.465,74 €
GUZTIRA	118.088,85 €	85.623,11 €	32.465,74 €

EUSKALTEGIA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
MOBLERIA	59.865,28 €	47.543,45 €	12.321,87 €
GUZTIRA	59.865,28 €	47.543,45 €	12.321,87 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

4.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGAREKIKO HOBARIA, Mariarats, 42 Areak etxebizitza sozialak egiteari buruzko obrak.

Arantxa Gibelalde, Hazienda batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: 42 arean- Mariarats Babes ofizialeko sozialak izango diren 38 etxebizitza egiteko obrek sortzen duten Eraikuntzen gaineko Zergari buruzko hobari eskaria.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozialak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

42 arean- Mariarats Babes ofizialeko sozialak izango diren 38 etxebizitza egiteko obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

5.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA. Araudia aldatzeari buruzko hasierako onespina.

Malu Vallés, Gizarte-ongizate batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gizarte Ongizate Batzordeak 2009-03-23an egindako bileran proposatu du Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudiaren 20. artikuluko 20.1 atala aldatzea, hau da, zerbitzua aldi batez eteteari dagokiona; honela:

-“Azken zerbitzuaz geroztik, hilabete eta erdi baino epe motzagoan etxetik kanpo egotea. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke. Erabiltzailea familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, aldi hori txanden epeen arabera luzatuko da” jartzen duen lekuan **jarri behar du**:

.-Azken zerbitzuaz geroztik, hilabete eta erdi baino epe motzagoan etxetik kanpo egotea ezin besteko kasuetan. Aldi hori egoera berezietan luza daiteke.

.-Azken zerbitzuaz geroztik, 7 egun baino gehiago eta hilabete eta erdi baino epe motzagoan etxetik borondatez kanpo egotea. Erabiltzailea familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, aldi hori txanden epeen arabera luzatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin erabaki hau hartu da:

“**Lehenik.** Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudiaren aldaketari hasierako onespina ematea.”

Bigarren. Erabaki hau jendaurrean jartzea iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, 30 eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

6.- LAGUNTZAK EMATEKO BAREMOA. Udalaren zerbitzuak erabiltzeagatik tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko baremo proposamena.

Malu Vallés, Gizarte-ongizate batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gizarte-Ongizate batzordeak 2009ko martxoaren 23an egindako bileran, Udaleko zerbitzuen erabilpenagatiko tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko ordenantza dela eta, ondorengo proposamena aurkeztea erabaki du:

.- 2008. urtean ur, zabor eta estolderi kontzeptuengatik eta Udal Kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindutako ordainagirietako kopuruak berreskuratzeko diru-sarreraren baremoa ondorengo izatea:

Hileko 600 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.

Hileko 601 eurotik 750 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %75 lortzeko.

Hileko 751 eurotik 900 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %50 lortzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

7.- LEHEN ALKATEORDEARI ARDURALDI ESKLUSIBOA AITORTZEA.

Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: lehen alkateordeari arduraldi eskusiboa aitortzea.

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 75,2 artikuluaen arabera, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

1.- EAJko udal talde politikoaren kide den Aitor Aldasoro Iturbe lehen alkateorde eta hirigintza eta euskara batzordeetako lehendakari jaunari arduraldi eskusiboa aitortzea.

2.- Udal gobernagarritasunerako eta Euskal Zinegotziek eta Alkateek euren karguak askatasunez betetzeko EUDELe (2007-12-20 Batzorde Exekutiboa) hartutako Akordioaren arabera Aitor Aldasoro Iturbe jaunak jasoko duen ordainsaria, Alkatearentzat ezarritako ordainsariaren %75arena izango da.”

Jarraian ondorengo dio: “2007. urtean erabaki genuen, lehen alkateorde eta hirigintza eta euskara batzordeetako lehendakari jaunari dedikazio partziala aitortzea eta horren arabera ordainsari bat ematea. Garbi asko ikusi da udaletxe honek behar gehiago dituela eta momentu honetan dedikazio osoa

dela. Gure antzeko udal guztietan eta gainera EUDELeK horrela esanda, Alkatetzatik kanpo gutxienez beste zinegotzi bat behar da liberatuta egotea. 10.000 biztanletik 20.000 biztanleen arteko udal batzuk hartu ditut eta denetan gutxienez bi liberatuta daude, Alkatea eta beste bat. Elgoibarren 2 daude Zumarragan bi eta erdi daude. Azpeitian orain arte hiru eta erdi izan dira. Hemendik aurrera ikusiko dugu. Andoainen zazpi daude 14.000 biztanleekin, Bergaran bi daude, 14.000 biztanleekin, Pasaian 6, 16.000 biztanleekin, Lasarten 7 daude, 17.000 biztanleekin.

Onartzen bada, apiriletik aurrera aplikatuko genuke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritzia azaldu dituzte.

PP eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Josi Insausti jaunak (EA) adierazi du abstenitu egin behar direla.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Partiendo del posicionamiento de que estamos de acuerdo con se quiera liberar al primer teniente de alcalde, vamos a votar en contra porque en este Ayuntamiento por parte del Alcalde, se aplica la ley del embudo. Lo ancho para su grupo y lo estrecho para los demás. Estamos mencionando el acuerdo para la gobernabilidad municipal y el libre ejercicio de su cargo por parte de los y las Alcaldes y concejales. Si nos vamos al punto del estatuto de la oposición, se dice que se tratará de establecer un modelo que favorezca el desarrollo del trabajo político de los distintos grupos políticos a través de un régimen singular ponderando la representación social otorgada por la ciudadanía y el peso relativo de las formaciones políticas en el seno de la Corporación. Eso quiere decir que se aplica parcialmente y en beneficio del grupo de la Alcaldía los acuerdos que en su día se firmaron por parte de casi todos los partidos políticos. El 23-10-07, Alcaldía propuesto reconocer la dedicación parcial en el desempeño de su cargo a Fernando Boada González, perteneciente al grupo socialista, siempre que él y su grupo aceptarán las presidencias de las comisiones informativas delegadas por la Alcaldía, así como los nombramientos que acordara efectuar el Ayuntamiento Pleno. Se establecía una condición de manera que si el partido socialista no aceptaba las propuestas del Alcalde, no entraba en vigor el acuerdo que hoy se pretende ampliar. También queremos hacer mención de que cuando aprobamos los presupuestos, dijimos que es verdad que la situación económica ha dado un giro total, y que no nos parecía muy prudente entrar ahora en esta discusión. Por ello pensábamos que no se iba a hacer ninguna modificación en lo que al teniente de alcalde se refiere ni a las asignaciones de los grupos. Cómo eso no

se da, ni tampoco estamos de acuerdo con el procedimiento, vamos a votar en contra.”

Alkate jaunak (EAJ): “una cosa es lo que has planteando, pero también es cierto que todos los Ayuntamientos parecidos al de Beasain, están actuando de esa forma. Yo creo que es de justicia reconocer que ese trabajo se está haciendo y es necesario para este Ayuntamiento. Además, el complemento que se plantea es el mínimo respecto del que se puede establecer.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ, EB, PP)
Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 3 (EA)

Horren ondorioz proposamena onartu egin da eta erabaki da arduraldi eskusiboa apiriletik aurrera aplikatzea.

8.-ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. Udal demokraziaren XXX. urteurrena dela eta EUDELen adierazpen instituzionala.

Une honetan, Arantxa Aseginolaza andreak batzarraldia utzi du.

Alkateak ezagutzera eman du, udal demokraziaren XXX. urteurrena dela eta EUDELen ondorengo adierazpena:

“Orain dela hogeita hamar urte aro berri bat hasi zen. 1979ko apirilaren 3an lehenengo udal hauteskunde demokratikoak ospatu ziren, testuinguru politiko berri baten barruan. Alde batetik, demokrazia suspertu zen, eta gainera, inflexio-puntu bat izan zen gure Udalen antolakuntzan, politikoki eta juridikoki.

Hogeita hamar urte pasa dira dagoeneko. Denbora horretan aldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta teknologiko garrantzitsuak bizi izan ditugu, eta horietara egokitu gara. Gure arteko desberdintasunak gorabehera, ilusio bateratuak eduki ditugu. Ilusio horiekin, garai berri hori inauguratu zuten boluntarioak gaur egun ezagutzen ditugun Udalak eraikitzen hasi ziren.

Ibilbide hori hasi zutenei omenaldia egiteko garaia da. Gure Alkate eta Zinegotziei beraien lana, ahalegina eta sakrifizioa eskertu behar diegu, Udal demokratikoen garapen eta sendotzea ekarri dutelako eta erakundea herritarrengana hurbildu dutelako. Horiei guztiei esker, gure Udalak oso baloratuta daude eta azken urteetan

asko eboluzionatu dute, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko. Beraien lanari esker, tokiko politikan boluntario gisa lan egin dutenen indarrari esker, erronka handiak gainditzeko gai izan gara eta indarberrituta irten gara beti.

Tokiko demokraziak hogeita hamar urte bete ditu. Eta hiru hamarkada horietako ibilbideak indarra eman behar digu, are indar eta konfiantza gehiagoz, aro berri honen erronkak gure gain hartzeko, baita 1979tik arrastaka dakartzagun horiek ere. Horregatik guztiagatik, EUDElen, data hori gogoratu nahi dugu, puntu hauetan oinarrituz:

- Bakea. Gure udalerrietan bizitzaren eta lanaren kontrako mehatxua den terrorismoa erauztea da gure helburu nagusia. Horregatik, terrorismoaren mehatxupearan lan egiten duten alkate eta zinegotziak omendu nahi ditugu, baita horregatik bizitza galdu dutenak ere.
- Tokiko autonomia, subsidiariedade eta finantza-nahikotasuna. Helburu horiek, era berean, hogeita hamar urte bete dituzte. Herrialdearen arkitektura instituzionalean Udalerriak integratzea, eta Udalerrien eskumen eta gaitasun horien titulartasuna aitortu eta ezartzea, gizartetik hain gertu egoteagatik. Hori da gure etengabeko erronka. Udalerrien Legea onartzea lan horretan erabakigarria izango da.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Berdintasun arloko politikak martxan jartzea da emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde aurrera egiteko modu bakarra. Erakundeek arlo horretan hartuko duten konpromisoarekin soilik, XXI. Mendeko arazo sozial nagusietako bat gainditzeko lortuko dugu, emakumeen aurkako indarkeria.
- Berrikuntza. Gure herritarrenganako zerbitzua hobetzea da udalen esentzia. Aro digitalean gaude, eta zerbitzu aurreratua eskaini behar dugu, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez, gardentasuna eta parte-hartzea bultzatu eta herritar guztientzako zerbitzu bateratu baten alde egin behar dugu, bizi diren lekuan bizi direla ere.
- Gobernantza. Udalerriak gero eta egoera konplikatagoetara egokitu behar dira. Horretarako, beharrezkoa da gobernatzeko moduan eragile, mota eta maila askodun gobernu erlazionalaren ereduak sartzea.
- Interkulturalitatea eta Gizarteratzea. Berdintasunaren aldeko borrokan, halaber, herritar guztien eskubideen alde egin behar dugu, diren lekukoak direla ere, eta errespetuan elkarbizitzeko eta elkarrengatik modua bilatu behar dugu.
- Europa eraikitzea. Lotura politiko, sozial eta kultural horren partaide gara, eta tokiko gobernuetan Europako herritarren alde lan egiteko konpromisoa hartu dugu, elkartasuna eta eraginkortasuna nagusi diren eremu batean.

- Erakundeen arteko lankidetza. Pieza garrantzitsua da zerbitzu publikoen kudeaketa eta eraginkortasuna, beraz, gure herrialdea gainerako erakundeekin batera eraikitzen parte hartu nahi dugu. Lankidetza hori beharrezkoa dela uste dugu, planteatutako proposamen guztiak lortzeko, sare horretan eman beharreko nahitaezko urrats bezala.
- Krisi ekonomikoa gainditzea. Une honetan hori da lehentasuna. Garai honetako esperientziaz eta ezagutzaz baliatu behar dugu, eta hori herritarrekin zuzenean elkarbizitzeak ematen digu. Horiek dira egoera horretatik indarberrituta ateratzeko gakoak.
- Aitortza. Hogeita hamargarren urtebetetze honetan, gure egitekoa da udalerri guztietan lana, ahalegina eta sakrifizioa inbertitzen duten Alkate eta Zinegotzi guztiak omentzea. Kasu gehienetan, bokazio hutsagatik eta herriarekiko maitasunagatik, ordainsaririk jaso gabe. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu udal mailako politikaren boluntario guztiei.

Horregatik guztiagatik, Euskal Udalerrien Elkarteak, EUDELeK, aitorpen hau onartu eta Udal guztiei gonbidapena egin die, egoki ikusten dituzten akordioen bidez, horrekin bat egin dezaten.”

Une honetan, Aitor Aldasoro jauna sartu da batzarraldira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

Aldez aurretik hitza eskatuta, Alkateak EAEko ordezkariari hitza eman eta honek Korporazioari galdetu dio ea benetan pentsatzen duten adierazpen horretan aipatzen den udal demokrazia errealitatean horrela den. Bestalde esan du, gehiegikeri bat iruditzen zaiela esatea, Alkateak eta zinegotziak boluntario moduan lana egiten dutela, kontutan izanik batzuk kobratzen dituzten soldatak.

Julio Herreros jaunak (PP): “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se está incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ): “Me hago responsable.”

9.- MOZIOAK.

a.- ETAk eraildako Ana Isabel Arostegi eta Fco Javier Mijangos ertzainen oroimenean, Anbulategiko biribilgunean plaka bat jartzeko sozialista taldeak aurkeztutako mozioa.

Fernando Boada, PSE-EE/PSOEko zinegotziak, aurkeztutako mozioa irakurri du:

“El 23 de noviembre de 2001, el comando Donosti de ETA asesinó a dos ertzainas que dirigían el tráfico en Beasain. Dos agentes de la Ertzaintza, Ana Isabel Aróstegui de 34 años y Francisco Javier Mijangos de 32, fallecieron tras ser tiroteados mientras regulaban el tráfico en el cruce de Zaldizurreta, frente al antiguo ambulatorio. Según los datos facilitados por Interior del Gobierno Vasco, dos terroristas, un hombre y una mujer, se acercaron a pie a los agentes y les dispararon cinco tiros por la espalda. Los dos agentes estaban adscritos a la comisaría de la Ertzaintza de Beasain, eran miembros de la 13ª promoción del Cuerpo y pertenecían a la unidad de Seguridad Ciudadana.

Durante todos estos años no han faltado las flores que, como recuerdo y homenaje, han depositado en el lugar del atentado sus familiares, amigos y compañeros.

La sociedad tiene una enorme deuda con las víctimas del terrorismo y se hace urgente que en Beasain haya un reconocimiento, entre ellas, a estos dos ertzainas.

Por eso, y aprovechando que en el cruce donde fueron cobardemente asesinados se está construyendo una rotonda y allí se ubicará una máquina de tren regalo de Renfe a Beasain, se aproveche para la colocación de una placa que recuerde a estos dos agentes asesinados.

De esta forma, Beasain no solo homenajeará y recordará a Ana Isabel Aróstegui y a Francisco Javier Mijangos, si no que también promoverá la memoria de este pueblo. Para que sus ciudadanos recuerden la lucha por la libertad y para que las futuras generaciones sepan lo que pasó. En definitiva, que la memoria esté presente en Euskadi para lograr derrotar al terrorismo y para que los jóvenes no aprendan del fanatismo, que vean sus consecuencias y que conozcan el ejemplo que han dado las víctimas del terrorismo.

Entendemos que el Ayuntamiento de Beasain, convencido de que el futuro de paz no puede asentarse sobre el olvido, aprobará la colocación de una placa que recuerde a los dos agentes con el objeto de perpetuar la memoria viva y el reconocimiento a las víctimas del terrorismo y la violencia y que, asimismo, sirva para reafirmar la apuesta inequívoca del pueblo de Beasain, representado en su ayuntamiento, por la paz.

Por todo lo expuesto, el Grupo Municipal Socialista, y en su nombre el portavoz del mismo, propone al Pleno del Ayuntamiento de Beasain la aprobación de la siguiente moción:

ACUERDOS:

El Ayuntamiento de Beasain acuerda la colocación de una placa que recuerde a los agentes de la Ertzaintza, Ana Isabel Aróstegui y Francisco Javier Mijangos, asesinados por ETA hace ocho años mientras regulaban el tráfico en el cruce Zaldizurreta. La placa se ubicará en la futura rotonda que se está construyendo en el lugar donde fueron asesinados.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak: “Apoyo total del partido popular a esta moción.”

EB eta EAko ordezkariak ere mozioarekiko adostasuna azaldu dute.

Alkate jaunak: “cuando se empezó a diseñar la rotonda, se tuvo en cuenta esta sugerencia. Se ha hablado con los familiares de los dos ertzainas asesinados. La escuela de cerámica municipal, se ha ofrecido para que diseñe y presente algún boceto de escultura sencilla, en donde se pudiera colocar esta placa. Estamos a favor de esta moción.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

Aldez aurretik hitza eskatuta, Alkateak EAEko ordezkariari hitza eman eta honek ondorengoa esan du: Memoria selektiboa izaten den bitartean ez dago gatazkari irtenbiderik emateko borondaterik. Guk proposatzen duguna da, Euskal Herriaren alde beraien bizia eman dutenen guztien alde plaka bat jartzea.

b.- Aberri Egunari buruz EAEn mozioa Alkateak aurkezten duena.

Alkateak EAEko ordezkariari hitza eman eta honek mozioa irakurri du:

“Euskal Herriak apirilaren 12an Aberri Eguna ospatuko du. 1931. urtetik aurrera, Euskal Herriaren eguna eta euskal herritar guztion eguna dugu. Urte asko igaro badira ere, 1931. urtetik gaur arte, baldintza politikoak ezberdinak izanda ere, Aberri Egunean milaka eta milaka euskal herritarrok kalera atera gara. Izan ere, aldarrikapen eguna dugulako.

Historikoki Udalek oso eginkizun garrantzitsua izan dute Euskal Herriaren aldeko aldarrikapenean. 1920ko eta 1930eko hamarkadetan udalek Eusko Ikaskuntzarekin eta Aldundiekin batera Euskal Herria aitortzearen alde egin zuten. Hamarkada batzuk beranduago alkateen mugimenduak frankismoaren aurka borroka egin zuen. Halaber, Pirinioen beste aldean, nabarmentzekoa da Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako udalek bultzada handia eman ziotela euskal departamentuari 1990eko hamarkadan. Bestalde, aurtan 10 urte beteko dira, Bilboko Euskalduna Jauregian Udalbiltza Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra sortu zenetik.

Gure herriaren egoera ez dago inola ere normalizatuta oraindik. Estaturik gabeko nazioa gara, bere buruaren jabe ez den herria. Horregatik 2009. urtean Euskal Herriari dagozkion eskubideen defentsan hurrengo apirilaren 12an Aberri Eguna ospatuko dugu. Nazio bat garela ozen eta indartsu agertu nahi dugu.

Izan ere, burujabetzaren aldeko estrategia nazionala bultzatzeko eta konpromisoa aldarrikatzeko garaiak dira. Euskal Herriaren eskubideen eta burujabetzaren aldeko esparruan bultzada herritarra eta soziala ezinbestekoa baita.

Honela, Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko bidean urrats eraginkorrak eman daitezten, Aberri Egunean abertzaleen eta sektore

ezberdinen arteko elkarlana sustatu nahian, BEASAINgo udalak honako ebazpena egiten du:

- Euskal herritarrei, eta bereziko BEASAINgo herritarrei, bai Euskal Herria eraikitzen, baita pairatzen dugun gatazka politikoa era demokratikoan gaingitzeko ere, dinamiketan inplika daitezzen deia egin nahi diegu.
- Euskal Herriko eragile politikoei, sozialei eta sindikalei arduraz jabetzeko, eta alderdikeriak baztertu eta herri gisa, Euskal Herri osoari begira, jokatzeko deia egin nahi diegu.
- Herri gisa zein euskal herritar gisa dagozkigun eskubideak urratzen dituzten bi estatuei Euskal Herria eskubide politikoak dituen subjektu gisa aitortu eta errespetatzeko deia egin nahi diegu.
- BEASAINgo herritarrei Irun eta Hendaia artean ospatuko dugun Aberri Egunean parte har dezaten gonbitea egin nahi diegu.
- Mozio honen bidez onartutakoa herritarrei zein komunikabideei jakinaraziko zaie.”

Mozioaren aurrean, EAJ eta EA taldeek ondorengo mozio alternatiboa aurkeztu dute:

“2009ko ABERRI EGUNEko UDALBILTZAREN ADIERAZPENA

1931ena geroztik ospatzen dugu abertzale garenok Aberri Eguna. Urte guzti hauetan, denok dakizkigun gorabeherak bizi izan ditugu, baina, guztien gainetik, Aberri Eguna Euskaldunon Eguna izan da, gure Nazioaren aldarrikapenaren eguna, ospakizunetarako, bai, baina baita Euskal Herriaren eraikuntzarekin gure konpromezua biziberritu eta adierazteko balio diguna.

Udalbiltza Euskal Herriko udalerri eta udal-hautetsiek osatutako Nazio Erakundeak aurten beteko ditu hamar urte. Hamar urte hauetan agerian utzi du egitura politiko eta administratibo zatikatzailen gainetik badagoela edozein euskal lurraldeetan berezkoa den erakunde bat, herrigintzan tradizio handikoa, politikoki eragilea eta sarean lana eginez mugak gaingitzeko gai dena.

Udalbiltzaren hamar urtetako bideak oinarri tinkoak izan ditu:

- Euskal Herria nazio bat da, Kontzientzi Nazioanalaren jabe den komunitate historiko, linguistiko eta kulturala.

- Euskal Nazioa gure Herria osatzen duten zazpi Lurralde Historikoek osatzen dute, “gorputza” lurraldetasunak ematen dion bezala, Nazioaren “arima” bertan bizi garen herritar orok.
- Nazio bat garenez, gainontzeko nazioek duten neurri berdinean dagokigu, geuri ere, gure etorkizuna demokratikoki erabakitzeko eskubidea.
- Euskal Nazio Eraikuntza euskal-hiritar guztion borondate librearen gainean bakarrik gauzatu dezakegu

Hori da, hain zuzen, aurtengo Aberri Egunerako deialdi honen bidez, berriz ere, ozen adierazi nahi duguna: euskal gizartearen aniztasuna aitortuz, giza-eskubide guztien defentsa sutsua eginez, benetako demokraziaren bideari jarraiki, Europako Herri zaharrenetarikoa garen neurrian, euskal herritar guztion artean Euskal Nazioaren Eraikuntzan etengabeko pausoak emateko eskubidea gurea dela

Zoritxarrez, ez dugu, oraingoan ere, gure helburu politikoak gauzatu ahal izateko girorik aproposena bizi.

ETAk oraindik ere entzungor egiten dio hainbeste aldiz Herri honek eskatutakoari. Bortxakeriaren eta jazarpenaren bideari ez dio, euskal gizarteak hainbeste aldiz exigitu arren, behingoz eta betirako uzten.

Herritarrek behin eta berriz ukatu dute ETAren zilegitasuna.

ETAk, inoiz bestelakorik uste izan badu ere, ez du inoiz “Herriaren” izenean jardun, baina azken aspaldiko honetan antzekorik esatea errealitatetik guztiz kanpo egotea da.

ETA da, eta armak uzten ez dituen bitartean izango da, euskaldunok elkarren artean adostasunetara iristeko dugun traba nagusia. Nazio Eraikuntza barrutik usteltzen duen harra. Gure Herriaren alde egiteko hain beharrezkoak ditugun indarrak ahultzen dituen gaitza. Sofrimendua besterik ekoizten ez duena.

Bestalde, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako hirun izandako azken hauteskundeetan argi geratu da (lehenago Nafarroan ere agerian geratu zen bezala) “Estatu Estrategiak” agintzen duela, PSOEk eta PP-ek elkarrekin diseinatutako Alderdien Legea eta honen aplikazioan ezarritako debeku politikoak medio, euskal abertzaletasuna erakundeetako ordezkartzatik desplazatu baitute, España osoan erabat ezinezkoa den hitzarmen politiko bati Euskal Erkidegoan forma emanez.

Euskadiko Estatutu Berriari ezetza eman zioten beraiek itxi zioten atea euskal gizartea kontsultatzeko bideari. Euskal hiritargoaren zati baten ordezkapen politikoa baliogabetu duten berberak dira egoera horretatik, aurretiaz ondo kalkulatua zuten etekina atera dutenak. Azken finean, abertzaleon gehiengoaren balizko “frentismoa” itxuraz arbuiatzen zutenek dira, berriz ere, beti izan diren bezala, euskal abertzaleon aurka elkar-hartzeko inolako eragozpenik ez dutenak. Españaiko ezker-eskubiak gauza bakarra dute amankomunean: euskal abertzaletasuna oldartzea.

Horregatik, aurten, Udalbiltzako Udal Hautetsiok inoiz baino ozenago deiadar egingo dugu Jata mendiaren gailurrean: “EUSKAL HERRIA DELA GURE NAZIOA ETA EUSKADI GURE ABERRIA”.

Deiadarrek merezi duen ohiartzuna izan dezan-go Udalbatzak herritarrei bertaratzeko gonbita egiten die, Euskal Herriko lurralde guztietako ikurren itzalpean, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa Garaia, Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoako ordezkari eta udal-hautetsiekin batera Euskadiko ikurrina altxatuz, apirilaren 11an, goizeko 11etan, Bakio, Lemoiz, Maruri-Jatabe eta Mungia inguruan dagoen Jata mendian Udalbiltzaren Aberri Eguneako ospakizunekin bat egin dezaten.

Gora Euskal Herria!

GORA EUSKADI ASKATUTA!!!!!!”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Estoy en contra de las dos mociones.”

EBko ordezkariak esan du abstenitu egingo dela.

EAKo ordezkaria mozioarekiko alde azaldu da.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros pensamos que es una cuestión de partido lo que aquí se presenta y no entendemos por qué se tiene que discutir. Es como si se hiciera una adhesión a la fiesta del día de la rosa que presenta el partido socialista. Por lo tanto, ni siquiera vamos a participar en la votación.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ, EA)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 2 (EB)

PSE-EE/PSOEko 5 zinegotziek ez dute bozketan parte hartu.

10.- ALKATETZAREN EBAZPENA

Ezagutzera eman dira, 2009ko martxoaren 3tik, 2009ko martxoaren 30erarte Alkateak emandako ebazpenak.

11.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

KIROLDEGIKO OBRAK

Josi Insausti jaunak (EA): “Es una sugerencia que queremos hacer desde el grupo, ahora que están a punto de finalizar las obras de la ampliación del polideportivo, y es la de que se tenga una atención especial con todos los abonados que se mantenido fieles durante todo el período que han durando las obras, a pesar de todas las incomodidades y molestias que ello supone. Proponemos que se estudie alguna fórmula para compensarles y que además se les de cuenta de ello.”

Alkate jaunak (EAJ): “Las instalaciones fundamentales están en marcha y el abono de 2007 se mantiene hasta julio de este año. Los abonados antiguos están pagando la cuota que tenían. A los que se incorporan por primera vez, se les aplican las nuevas tasas. Con todo estudiaremos alguna fórmula.”

CARPA

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “ El fin de semana del 6, 7 y 8 de marzo, los empleados públicos montaron la carpa y el escenario en la plaza. Quisiéramos saber cuál ha sido el coste de dicho montaje y quien es el que lo ha pagado dado que el uso de la carpa y escenario no era debido a actos municipales, sino que era para particulares. Así mismo quisiéramos saber cómo están reglados los actos que se celebran en los bajos del Ayuntamiento. Quisiéramos saber qué horarios se aplican, cuál es la normativa de ruidos, y si esos actos son pagados por los particulares. No nos parece que no pueda haber nada reglado para actos celebrados en espacios públicos, en cuanto al tema de horarios y ruidos y seamos tan estrictos con los bares.”

Alkate jaunak (EAJ): “Solicitan la carpa para el 6, 7 y 8, y los trabajadores como es costumbre ponen la carpa. Lo mismo ocurre cuando solicitan autorización en los bajos del Ayuntamiento para cenas, feria de la cerveza, etc. Los trabajadores municipales se encargan de llevar el material y se les fija un horario. En estos momentos no puedo precisar el coste, pero en la siguiente comisión de servicios se dará a conocer.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Entiendo que el coste siempre lo asume el Ayuntamiento. Según eso, si alguien quisiera celebrar una boda, lo podría pedir. Sería un acto cívico como cualquier otro, y sería a costa del erario público.”

Alkate jaunak (EAJ): “Hasta ahora no se ha dado ese caso. Han sido actos de grupos políticos o asociaciones culturales. Si surgen nuevas iniciativas habrá que empezar a regular.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Habrá que hacerlo público para que la gente lo pida y a ver si lo regulamos.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko hamarrak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.